DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don IÑAKI TXINTXURRETA PERDIGUERO jn.**

**Donostiako Udaleko Bitarteko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General en funciones del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzardeak, 2025eko urriaren 28an egindako ohiko bilkuran, Erakunde adierazpen hau onartu zuela, aho batez:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 28 de octubre de 2025, aprobó, por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

## *“ERAKUNDE ADIERAZPENA AFGANISTANGO EMAKUMEEN ETA NESKEN GIZA ESKUBIDEEN ALDE*

## *“DECLARACIÓN INSTITUCIONAL A FAVOR DE LOS DERECHOS HUMANOS DE LAS MUJERES Y NIÑAS AFGANAS*

2021eko abuztuan talibanen erregimenak boterea hartu zuenetik, Afganistango emakumeek beren oinarrizko eskubideen urraketa sistematikoa jasan dute. Hezkuntzarako, lanerako, zirkulazio librerako eta bizitza sozial, kultural eta politikoan parte hartzeko eskubidea murriztu zaie.

Desde la toma del poder por parte del régimen talibán en agosto de 2021, las mujeres afganas han sido objeto de una sistemática vulneración de sus derechos fundamentales. Se ha restringido su derecho a la educación, al trabajo, a la libre circulación y a participar plenamente en la vida social, cultural y política.

Afganistanen, 11 urtetik gorako neskek ezin dute eskolara joan; emakumeak ezin dira kalera bakarrik atera, ezta funtsezko zerbitzuak erabili ere, gizonezko baten tutoretzarik gabe. Errepresio hori ez da ustekabekoa, baizik eta egiturazko politika bat, bere presentzia espazio publikotik ezabatzea eta bere herritartasuna ukatzea bilatzen duena, justiziarako, hezkuntzarako, lanerako, osasunerako eta parte-hartze politikorako sarbidea eragotziz. Afganistango emakumeek eta neskatoek justiziara jotzeko aukerarik ez izatea bereziki kezkagarria da: erakundeak desegin dira, lege-babesak kendu dira eta emakumeek sistema judizialean parte hartzea debekatu da, eta baliabiderik gabe utzi dira indarkeriaren, diskriminazioaren eta zigorgabetasunaren aurrean.

En Afganistán, niñas mayores de 11 años no pueden asistir a la escuela; las mujeres no pueden salir solas a la calle ni acceder a servicios esenciales sin la tutela de un varón. Esta represión no es accidental, sino una política estructural que busca borrar su presencia del espacio público y negar su ciudadanía, impidiéndoles el acceso a la justicia, la educación, el trabajo, la salud y la participación política. La falta de acceso a la justicia de mujeres y niñas afganas es especialmente alarmante: se han desmantelado instituciones, eliminado salvaguardas legales y prohibido la participación femenina en el sistema judicial, dejándolas sin recursos frente a la violencia, la discriminación y la impunidad.

Afganistango emakume eta neskatoek bizi duten gizarte-bazterketa agerian geratu da 2025eko iraileko lurrikaran. Hildako edo desagertutako pertsonen % 60 baino gehiago emakumeak eta neskatoak dira; izan ere, erreskatatzaileen taldeek debekatuta zuten

Esta exclusión social que viven las mujeres y niñas afganas, ha quedado patente en el terremoto de septiembre de 2025. Más del 60% de las personas fallecidas o desaparecidas son mujeres y niñas, debido a que los grupos de rescatistas tenían prohibido

10740n XVII

hondakinen azpian geratu zirenei laguntza ematea, beren familiakoak ez diren gizonek ezin dituztelako ikusi edo ukitu. Eta berriro ere, existituko ez balira bezala, emakumeak ez ziren tragediaren irudietan agertu.

prestar auxilio a las que quedaron bajo los escombros, por el hecho de no poder ser vistas o tocadas por hombres que no pertenezcan a su familia. Y una vez más, como si no existieran, las mujeres no aparecieron en las imágenes de la tragedia.

Hala eta guztiz ere, emakume afganiar askok eusten jarraitzen dute, klandestinitatetik, erbestetik edo nazioarteko aktibismotik. Donostiatik bere ausardia, antolatzeko gaitasuna eta askatasunaren eta duintasunaren aldeko borrokaren eredua aitortu nahi ditugu. Emakume baten askatasuna, munduko edozein lekutan, ezin da guztien askatasunetik bereizi.

A pesar de ello, muchas mujeres afganas siguen resistiendo, desde la clandestinidad, el exilio o el activismo internacional. Desde San Sebastián queremos reconocer su valentía, su capacidad de organización y su ejemplo de lucha por la libertad y la dignidad. La libertad de una mujer, en cualquier parte del mundo, es inseparable de la libertad de todas.

Horregatik, Donostiako Udalak, giza eskubideekin, berdintasunarekin eta justizia sozialarekin duen konpromisoarekin bat etorriz, kezka larria adierazten du Afganistanen milioika emakumek eta neskatok bizi duten egoera larriagatik.

Es por ello que el Ayuntamiento de San Sebastián, en sintonía con su compromiso con los derechos humanos, la igualdad y la justicia social, expresa su profunda preocupación por la grave situación que enfrentan millones de mujeres y niñas en Afganistán.

Horregatik guztiagatik, Adierazpen Instituzional honen bidez, Donostiako Udalak honako hau adierazten du:

Por todo ello, mediante la siguiente Declaración Institucional, el Ayuntamiento de San Sebastián declara que:

1. Afganistango emakumeen eta neskatoen eskubideen defentsa giza eskubideen kontu bat da, eta, beraz, balio demokratikoekin konprometituta dauden erakunde publiko guztiei dei egiten die.

1. La defensa de los derechos de las mujeres y niñas afganas es una causa de derechos humanos y, como tal, interpela a todas las instituciones públicas comprometidas con los valores democráticos.

2. Hezkuntza eskubide besterenezina eta unibertsala da, batez ere neskentzat, eta ezin da mugatu inolako argumentu kultural, politiko edo erlijiosorekin.

2. La educación es un derecho inalienable y universal, especialmente para las niñas, y no puede ser restringido bajo ningún argumento cultural, político o religioso.

3. Gobernuek eta erakundeek ez dute legitimatu behar emakumeen aurkako bazterketa, diskriminazioa eta egiturazko indarkeriako politikak politikak ezartzen dituzten erregimenak.

3. Los gobiernos e instituciones deben abstenerse de legitimar regímenes que imponen políticas de exclusión, discriminación y violencia estructural contra las mujeres.

4. Premiazkoa da arrisku-egoeran dauden emakume afganiarrei nazioarteko babesa, asiloa eta harrera emateko mekanismoak indartzea, emakume horiek eskubideen subjektu eta ahots politiko propioa dutela aitortuz.

4. Es urgente reforzar los mecanismos de protección internacional, asilo y acogida para mujeres afganas en situación de riesgo, reconociéndolas como sujetas de derechos y con voz política propia.

5. Afganistango emakume eta neskatoak ez dira biktima pasibo gisa aitortu behar, baizik eta aldaketetarako eragile aktibo gisa, beren herriaren etorkizunari buruzko edozein prozesutan lidergo politikoa izanik.

5. Las mujeres y niñas afganas deben ser reconocidas no como víctimas pasivas, sino como agentes activas de cambio, con liderazgo político en cualquier proceso sobre el futuro de su país.

6. Erbesteratutako edo asiloa eskatzen duten emakume afganiarrak hartzeko eta laguntzeko politikak beharrezkoak dira, bisatu humanitarioko bide seguruak eta gizarteratzeko, hezkuntzarako eta laneratzeko neurriak barne hartuz.

6. Son necesarias políticas de acogida y acompañamiento a mujeres afganas exiliadas o solicitantes de asilo, incluyendo vías seguras de visado humanitario y medidas de inclusión social, educativa y laboral.

Era berean, Donostiako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

E igualmente, el Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a:

7. Hiritik sentsibilizazio-, lankidetza- eta elkartasunekintzak bultzatzea emakume eta neskato afganiarrekin, bai jatorrian, bai igarobidean eta helmugan.

7. Impulsar desde la ciudad acciones de sensibilización, cooperación y solidaridad con las mujeres y niñas afganas, tanto en origen como en tránsito y destino.

8. Lankidetzan aritzea sare feministekin, gizarte zibileko plataformekin eta krisialdietan emakumeen giza eskubideen alde lan egiten duten nazioarteko erakundeekin.

8. Colaborar con redes feministas, plataformas de sociedad civil y organismos internacionales que trabajan en defensa de los derechos humanos de las mujeres en contextos de crisis.

9. Adierazpen hau erakunde eskudunei helaraztea, bai autonomia-erkidegoan, bai estatuan eta Europan, eta Donostiak justizia globalarekin eta emakumeen eskubideekin konprometitutako hiri gisa duen zeregina indartzea.

9. Trasladar este posicionamiento a las instituciones competentes, tanto a nivel autonómico como estatal y europeo, reforzando el papel de San Sebastián como ciudad comprometida con la justicia global y los derechos de las mujeres.

Donostian, 2025eko urriaren 10ean

En San Sebastián, a 10 de octubre de 2025

*Jon Insausti Maisterrena EAJ-PNVren bozeramailea Portavoz EAJ-PNV*

*Juan Karlos Izagirre Hortelano EH Bilduren bozeramailea Portavoz EH Bildu*

*Ane Oyarbide Ochoa PSE-EEren bozeramailea Portavoz PSE-EE*

*Borja Corominas Fisas*

*PPren bozeramailea Portavoz PP*

*Víctor Lasa Briz*

*Elkarrekin Donostiaren bozeramaileaPortavoz Elkarrekin Donostia".*

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES**

**Iñaki TXINTXURRETA PERDIGUERO**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Iñaki Txintxurreta (06/11/2025 14:32 CET), Jon Insausti Maisterrena (06/11/2025 15:19 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : Y1I5-G9SF-J5G1-3LFE